

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Guk hainbat bezero edukiko ditugu, diskografika moduan edukiko ditugun bezeroak hauek dira:

- taldeak(gure zerbitzuak ordaintzen dituztelako)
- arropa eta diska dendak Euskal Herri edo munduan zehar, gure materialak saltzen dizkiegulako gero beraiek jendeari sal ditzaten;
- udaletxea, kontzertuak egiteko ematen dituen diru laguntzengatik
- sare sozialak, gure parte-hartzeagatik anuntzioengatik jasotzen dugulako dirua
- musika digitala, bai erosketak direktoengatik edo youtube ala spotify bezalako musika erreproduzitzailengatik
- gure webgunetik saltzen ditugun sarrera eta edonolako material edo salgai
- antzokiak, sarreretan lortutako diruaren ehuneko bat ematen digute

Bestalde, kafe antzoki bezala, baita udaletxea, diskoetxeak, diskografikak eta azkenik entzuleak izango dira bezeroak, baita edarien kontsumitzaileak.

Bezero hauen ezaugarria, gure musika mota, hau da, Punk-Oi! edo antzeko musikarengatik inbertitzera prest daudela da. Enpresen helburua, honetatik dirua ateratzea izango da eta jendearen erosketak, nahi edo behar pertsoalak asetzeko izango da.

Guk, nitxo merkatua erabiliko dugu, hau da, talde konkretu bati forma berdinean bideratutako produktu eta zerbitzuak eskainiko ditugu. Zehazki, punk-oi musika gustoko duen jendea eta antzokietara joatea gustoko duen jendeak osatzen du, konkretuki.

Gainera, adineko segmentazioa eginik, gazteentzat talde berriak daude, nahiz eta talde zaharrak entzun ditzaketen eta zaharrekin kontrakoa. Bestalde, helburua bai gazte eta helduek, talde berri eta zaharrak entzutea izango da, kultura sustatzeko eta berpizteko asmoz. Baita guk honetatik negozio lortzeko, noski.

